

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakaria Iñigo Urkullu, Jean René Etchegaray eta Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordearekin bildu da

Ostirala, 2017.eko apirilak 7

Uxue Barkos lehendakaria, Iñigo Urkullu (EAE-ko lehendakaria) eta Jean René Etchegarayek (Iparraldeko Elkargoko presidentea) lan-bilera bat eduki zuten, asteazkenean, Ram Manikkalingam Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeko Koordinatzailearekin.

ETAren azkeneko armagabetzearekin lotutako egoeraren eta berehalako urratsen analisia partekatzea izan zen bileraren lehendabiziko helburua.

Aldi berean, hiru erakundeek Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeari egindako lan onari babesa emateko balio izan zuen bilerak.

Azkenik, bideratzen ari den ETAren azken armagabetzearen prozesua behin betikoa, baldintzarik gabekoa eta egiaztagarria izatea eta legaltasun-bermeen esparru batean garatzea eskatu zioten hiru erakundeek Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeari.

Bilerak, 20:00etan hasita, lau orduko iraupena izan zuen eta Gasteizko Neiker-Tecnalia ikerketa zentroaren egoitzan egin zen Arkauten.

Uxue Barkos lehendakaria Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia den Alvaro Baraibarrekin egon zen bileran; Iñigo Urkullu, Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarekin; eta Jean René Etchegaray, Marc Amestoy bere kabineteko buruarekin.



Bilera asteazkenean burutu zen, Gasteizko Neiker-Tecnalia ikerketa zentroaren egoitzan.